

Gipuzkoa

Bergara

San Juan

### CRIADERO VASCONGADO DE CODORNICES



Rufino Garmendiak eraikin bat altxatzeko eskatu zion M.A. Lazpita arkitektoari 1972an, galeperrak hazteko negozioa handitzeko. Espazio malkartsu eta zabal batean eraiki zuten, San Juan auzoan, Bergara eta Elgeta lotzen dituen errepidearen ondoan. Eraikin berezia, 70eko autore-arkitekturaren tankerako lengoia plastikoa duena eta balio ikonografiko handiduna. Horrek guztiak balio artistiko eta arkitektoniko nabarmena ematen dio, eta inguruko eraikinetatik bereizten da. Oinplano angeluzuzena eta zazpi solairu ditu. Eraikinaren banaketa bi faktorek baldintzatzen dute batik bat: pendizean eraikita egoteak eta galeperren ugalketa- eta eboluzio-zikloak. Xede horrekin altxatu zuten eraikina: aireztapena ondo zainduta dauka, baina argi naturalik ez da sartzen. Eraikinaren egitura hormigo armatuzkoa da, erretikulatua, eta forjatuak ere material berekoak dira. Estalkiak bi isurialde ditu, eta metalezko zertxen gainean dago. Itxiturak bistako adreiluz eginak dira, eta horma-atal kurbatuek (konkaboak) fatxada goitik behera urratzen dute. Bitarteko espresionista hori baliatuta, kalitate estetiko eman zioten multzoari. Egitura horren bidez, aire-ganbera sortzen da, barneko tenperaturari eusteko. Nabarmenezkoa da, halaber, eskaileraren eta karga-jasogailuaren zuloa; fatxadaren mutur batean dago, sareta zeramiko apaingarriz estalita. Bertan, CVC letrak eta enpresaren izena daude. Atzeko fatxadak murre lau dauka, adreiluzko paramentu konkaboekin.

En 1972 Rufino Garmendia encargó al arquitecto M. A. Lazpita la construcción de un edificio para ampliar su negocio de cría de codornices. Se ubicó en un amplio espacio irregular, con fuertes desniveles, junto a la carretera que comunica Bergara con Elgeta, en el barrio de San Juan. Su singularidad, el lenguaje plástico, muy relacionado con la arquitectura de autor de los años 70 y su alto valor iconográfico le otorgan un notable valor artístico-arquitectónico, que contrasta con las construcciones de su entorno. El proyecto se desarrolla en un gran edificio de planta rectangular y siete alturas, cuya distribución está condicionada por la propia ubicación en pendiente y por el ciclo reproductivo-evolutivo de las codornices. A este fin se subordina la construcción, con una cuidada ventilación del inmueble, que debía evitar la entrada de luz natural. Constructivamente, su estructura es reticulada de hormigón armado, con forjados de este material. La cubierta, a doble vertiente, se dispone sobre cerchas metálicas. Los cierres son de ladrillo cara vista, resueltos mediante lienzos curvos de forma cóncava que rasgan verticalmente las fachadas, en una solución de raigambre expresionista que confiere calidad estética al conjunto. Todo ello forma cámara de aire para un mejor mantenimiento de la temperatura interior. Destaca también la caja de escalera y montacargas, ubicada en un extremo de la fachada y recubierta con celosía cerámica de carácter decorativo, completa do con la disposición de las letras CVC y el nombre de la empresa. La fachada zaguera se resuelve con un muro liso de paramentos cóncavos de ladrillo.